



Hondarribia

HERRI ALDIZKARIA
185. zkia . 2006ko apirila



163 GEREZIONDO BERRI MENDIAN

4-11. Herrian barrena

12-13. Elkarrizketa: Edorta Kanpandegi

16-17. Zuhaitz eguna

20. Opila Eguna

27. Gazte Informazio Bulegoa

30-31. Martxoko demografia

| JATETXEA-TABERNA



San Pedro, 35
20280 HONDARRIBIA

Tel. 943 64 27 71
943 64 10 19



San Pedro, 30
943 11 02 03
20280 HONDARRIBIA

*Zure terrazak betiko zerbitzu onenarekin, Hondarribiko Portua auzoan,
gastronomi espezialitate onekin*



kutxa



Alprox
SUNSUNDEGI

Tel. 943 64 15 40
Santiago kalea, 17
20280 Hondarribia

BATZOKI
TABERNA - JATETXEA



- Egunko menua
- Menu bereziak
- Karla
- Gure terraza goza ezazu
- Gure Ama Guadalupekin

Milurikotea, 20280 Hondarribia
20280 HONDARRIBIA - Gurea



Errehellin kalea 3 behea

Tel. 943 64 48 00 • Lantegiko Tel. 943 64 56 45 • Faxe 943 64 44 97

20280 HONDARRIBIA

Euskararen erabilera Hondarribiko gazteen artean



Euskara Zerbitzuaren enkarguz SIADECO Elkarteak egin duen ikerketaren arabera, Hondarribiko gazteen euskara ezagupenetik erabilerara alde handia dago, batik bat, kalean, tabernan edo jolasean lagunekin

erabiltzen dutena kontuan hartzen bada.

Ikerketa hori 12 eta 17 urte arteko gazteen hizkuntza errealitatea ezagutzeko egin da eta jarraian azaltzen diren datuek erakusten digute hori nolakoa den:

Euskararen ezagupena:

Hondarribiko gazte gehienak (%91,1) euskaraz ongi edo nahiko ongi hitz egiteko gai dira

Euskaraz ongi edo nahiko ongi hitz egiteko gai direnak	%91,1
Ama hizkuntza euskara soilik edo gaztelaniarekin batera dutenak	%78,0
Euskaraz errazago egiten dutenak	%22,1
Gaztelaniaz errazago egiten dutenak	%42,6
Bietan berdin egiten dutenak	%35,2
Bi gurasoak euskaldunak dituztenak	%41,4
Bat euskalduna eta bestea erdalduna dutenak	%34,1
Biak erdaldunak dituztenak	%24,5

Euskararen erabilera:

Hondarribiko 12 eta 17 urte arteko gazteek kaleko lagunekin %13,5 egiten dute euskaraz

Irakasleekin	%43,5
Telefonia hartzean	%45,6
Ikaskideekin gelan	%18,7
Kirol ekintzetan	%18,8
Tabernan	%16,4
Denbora libreko beste ekintzetan	%14,-
Kaleko lagunekin	%13,5
Patioan lagunekin	%12,6

Datu hauek ikusita Euskara Zerbitzuak gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko kanpaina bati ekin dio, eta horren lehen urratsa, egun hauetan abian jarri dugun Komunikazio Plana da, irudi erakargarri batzuk kaleratuz gazteengana hurbildu nahirik.

<u>Argitaratzailea:</u>	Ainara Elizondo	<u>Maketazioa:</u>
Udal Euskara Batzordea	Martin Iturbe	Usoa Ramírez Melón
<u>Erredakzioa/publizitatea:</u>	<u>Argazkiak:</u>	<u>Inprimategia:</u>
ZIF & Comunicación	Hondarribiko Udala	Antza
zifcomunicación@terra.es	ZIF & Comunicación	L.G. SS 122/86
<u>Kolaboratzaileak:</u>	Fernando de la Hera	
Koldo Ortega	Floren Portu	HONDARRIBIAK ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien ondorioak.
	<u>Tel.:</u> 943 63 81 28	

TXANDAKO BOTIKAK APIRILEAN ETA MAIATZEAN

13- MAYI MARTINEZ Alonso	.943 642191
14- IRAOLA San Pedro, 5	.943 641027
16- ALMAJANO Mendelu, 26	.943 640068
17- ALAMEDA Harresilanda, 9	.943 645798
23- ALAMEDA Harresilanda, 9	.943 645798
30- ERAUSKIN San Pedro, 22	.943 641018
1- ERAUSKIN San Pedro, 22	.943 641018
7- ERAUSKIN San Pedro, 22	.943 641018
14- MAYI MARTINEZ Alonso	.943 642191
21- IRAOLA San Pedro, 5	.943 641027

TXANDAKO OKINDEGIAK APIRILEAN ETA MAIATZEAN

13- ARRATIBEL Mendelu auzoa	.943 641975
14- GARMENDIA Portuan	.943 641136
16- MARTINEZ Kale Nagusia, 17	.943 641212
17- ARRATIBEL Mendelu auzoa	.943 641975
23- GARMENDIA Portuan	.943 641136
30- MARTINEZ Kale Nagusia, 17	.943 641212
1- ARRATIBEL Mendelu auzoa	.943 641975
7- GARMENDIA Portuan	.943 641136
14- MARTINEZ Kale Nagusia, 17	.943 641212
21- ARRATIBEL Mendelu auzoa	.943 641975

Hondarribiko Aste Santuko VI Argazki Lehiaketa

Hondarribiko Udaleko Turismo sailak aurten ere, orain dela sei urte lehen aldiz ospatu zenetik, Aste Santuko Argazki Lehiaketa antolatuko du.

Lehiaketan edonork parte har dezake. Gaia 2006ko Hondarribiko Aste Santua izan behar da argazki koloretan edo zuri beltzetan.

Partaide bakoitzak gehienez hiru argazki aurkez ditzake sari-
tu edo argitaratu gabeak. Neurria librea da, baina argazki
bakoitza 30 x 40 zmko kartulina batean aurkeztu behar dira.
Atzealdean lanaren izenburua jarri behar da, baita kanpoko
aldeko kartazal itxi batean. Honen barruan, egilearen izen
abizenak, helbidea, telefonoa eta N.A.N fotokopia erantsiko
dira.

Argazki guztiak Udal Liburutegian -Zuloagan Etxea- entrega-
tuko dira, maiatzaren 29 eta 30a bitarte, eguerdiko 12:00tatik
13:00ra eta arratsaldeko 16:00tatik 20:00tara. Eta argazki
onenak, Zuloaga Etxean 2007ko Aste Santuan erakutsiko
dira.

Sariak:

1.saria: 500 euro

2.saria: 400 euro

3.saria: 300 euro

Sari hauei P.F.G.Z.ri dagokiona kenduko zaie.



Aste Santuko irudi bat

Aireportuko errepidearen lanak hurrengo urtean hasiko dira



Aireportuko errepidearen lanek bariante berriarekin bat egingo dute

Aireportuko errepideak banatzeko Amute zubiarai-
no egingo diren lanak hurrengo urtean hasia
espero dira. Jarduera honekin Diputazioak 2, 5
milioi euroko aurrekontua zuzendu du.

Hala ere, jarduera honek zalantza bat planteatzen du.
Oraindik ez dakite Amute zubia pasa eta gero bideak
jarraituko duen ala ez. Proiektua Landetza auzotik Irun
noranzkoetan N-1 atal proiektuaren menpean
dago. Bidegurutzetik dauden aukerak hauek dira: N-638
errepidetan, N-1 Donostia noranzkoetan lotuta dagoena,
lanak egitea edo Irunera joaten den bidean Behobia
noranzkoetan N-1 ekin lotzen dena.

Josu Agirrezabalaga Diputazioko errepidetako zuzenda-
riaren esanetan, aireportuko errepidearen kasuan lau
erreietan banatuko da puntu erdian glorieta batekin.
Mendelu N-1 ekin loturan Ventas -Oxinbiribil egingo den
konponbidean menpe dago. Azken proiektu hau egiteko
Diputazioak sei milioi euroko aurrekontua zuzendu du.

Bestalde hurbilago dauden lanak Santa Engracia roton-
datik Baserritar etorbidean egongo den loturakin, Gabriel
Aresti eta Pedro Mourlane kaleen arteko gurutzetan
izando da. Hauek apirilean hasia espero dira.

Hemendik aurrera HONDARRIBIA aldizkaria zure etxean **dohainik** jaso nahi baduzu,
bete ezazu harpidetza-txartel hau eta bidali edo eraman Udaletxeko Euskara Zerbitzura.


HARPIDETZA TXARTELA

Izen-deiturak:

Helbidea:

Herria:

Talaia, Ama Guadalupekoa eta San Jose ikastetxeek Klik eta Klik lehiaketan hartu dute parte



Klik eta klik web orrialdearen irudi bat

Talaia Institutua, Ama Guadalupekoa Ikastetxea eta San Jose Ikastetxea izan dira aurtien Klik eta Klikeko hiru garren ekitaldian parte hartu duten Hondarribiako ikastetxeak. Ekimen honen helburua nerabeak giza baloreetan hezteko, internetek hezkuntza duen ahalmena aprobetxatuz. Digital Vascak martxan jarritako proiektu pedagogiko honek Udalaren laguntza jaso du.

Isabel Olazabalek, Hondarribiako Udaleko Hezkuntza zinegotziak esandakoaren arabera, Klik eta Klik proiektuak "gazteekin lantzeko alderdi interesgarriak sustatzen ditu, esaterako, informazio-iturri ezberdinetan bilatzen jakitea, jasotako informazioari buruzko gogoeta egitea, gai ezberdinen inguruko eztabaida sustatzea edo taldean lan egitea". Besteak beste, horregatik hartu dute parte, berriro ere, aste honetan amaituko den ekitaldian. Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko 14 eta 15 urteetako 1.500 nerabek hartu dute parte ekitaldi honetan.

Bigarren hezkuntzako ikasleek, hauei baitago proiektua zuzenduta, aste honetan amaituko dute lau hilabete iraun dituen Klik eta Klikeko ekitaldiak. Denbora-epe honetan, hainbat gai eztabaidatu dute ikasgeletan, eta baita Interneteko foroetan ere, esaterako, teknologia berrien mendekotasuna eta inmigrazioa. Isabel Olazabalek kontsideratzen duenez, "lantzen diren gaiak egokiak dira gazteentzat".

Lehiaketa ez da garrantzitsuenak Klik eta Kliken, baina eragingarria da ikasleentzat; horregatik, ikastetxeek puntuazioa lortzen dute hilero probak gaintuzten dituzten heinean, eta hainbat sari lortzen dute, esaterako, Xenon Computer-ek eskainitako ordenadoreak, kamera digitalak eta bideo-konsoleak.

Informazio gehiagorako www.kliketaklik.com webgunea bisitatu.

Baratza komunitarioak balorazio positiboa izan du

Baratzak, Prebentzio Komunitarioak INEM laguntzarekin egin duen hirugarren proiektua, arraskasta handia izan du antolatzaile eta parte hartu duten pertsonen arabera.

Proiektu honek, lau hilabete iraun duena, segituan jarraipena izango du. Baratzen, Montaña auzoan dagoen Botika baserriaren ondoan, boluntario batzuk egin dute lan. Lortuko diren produktuekin Egin Egon Toki lekuan salmentan jarri dira.

Ion Etcheberriak, proiektuaren arduradunetako batek esan zuenaren arabera, "Baratza programari buruz galdetu den pertsonen artean jasotako eskaeraren emaitza ona da. Orain arte, ondo joan da eta hasiko den etapa berrian boluntario talde batekin horrela segitzeko espero dugu".

Baratza proiektua abenduan hasi zen. Lau emakume, hutsetik hasita lurzorua ez zeukatelako, hemen egin zuten lan. Egin behar zuten lehen gauza belardi bat baratza bihurtzea izan zen. Hasieran traktorearekin lurra bueltatzeko eta ongarri emateko baserriar batzuen laguntza izan zuten. Lurraren ph egokia lortzeko, simaur mota batzuk, behi eta zaldiarena, erabili dute.

Baina bere emaitzak ikusteko oraindik bi hilabete itxaron behar dute. Baratza hiru zatitan banatu da: belar usaintsuak, barazkiak eta loreak. Hurritz bat ere landatu dute. Babak, ilarrak, baratxuriak eta tipulak landatu dira. Hasiko den bigarren fasean, piperra, tomate, pipermin eta berenjenaren haziak ereingo aldatuko dira.

Baratza Txingudiko Zerbitzuak egin duen konpost kanpian sartu da. Hiru konpostagailua ditu, partaideek etxetik ekarritako hondakinak auzitaratzeko.



Botika baserriaren inguruan garatu da proiektu berria

Zortzi tona zabor jaso dira Jaizkibelen Itsasertzeko Garbiketa programari esker

Prebentzio Komunitarioko udal zerbitzuak kudeaturik eta INEMen dirulaguntzari esker, Itsasertzeko Garbiketaren zazpigarren programa aurrera eraman berri da Jaizkibel mendian. Bost gizonezko eta hezitzaile batek hilabeteetako lanetan 8 tona zabor bildu dituzte.

Ion Etxeberria, Prebentzio Komunitarioa zerbitzuko arduradunetako batek eta Ongizate Arloko zinegotzia den Maite Pelaezek esan zutenez, "programa hau egiten den zazpigarren urtea da eta ingurugiroa babesteaz gain, langabezia dauden pertsonen zeregin bat helaraztea du helburu. Horrela, INEMek jarritako 28.600 euroko dirulaguntzarekin eta Prebentzio Zerbitzuek inbertituriko beste 2.500 euroekin finantzatu dugu proiektua".

Esan beharra dago, era berean, diru hau guztia Artebide programa aurrera ateratzeko baliatu izan dela. Beste programa honetan lanean aritu direnak EginEgon Toki lokala antolatu eta apaintzea izan dute xede nagusia, eta baratza komunitario baten sustapenerako baliagarriak izanen diren euskarriak sortzen egin dituzten ahaleginak.

Maite Pelaezen hitzetan, "lortutako emaitzak arrakastatsuak izan dira". Izan ere, bi proiektuen helburua partehartzaileen lanerako sarreraren baldintzak hobetzea zen has-tapenetik, eta bost emakumek Artebide programan eta Itsasertzeko Garbiketaren berriz, beste bost gizonezkoek lanak aurrera eramateko ahalmena erakutsi dute lau hilabetez. Hondarribitar zinegotziaren arabera, "esperientzian oinarritzen bagara, datozen urteetan INEMek laguntzarekin bat egiten badu programarekin jarraituko dugu".

Partehartzaileen lan-baldintzak hobetzeaz gain, Itsasertzeko Garbiketa lanaren helburua "Hondarribiko gune naturalak egokitzea eta mendiko zelai eta errekaetako garbitzea" izan da Pelaezek esan duenez. Horrela, aurtengoan bost gizonezkoek hezitzaile baten zuzendaritzapean zortzi



tona zabor bildu dituzte 400 poltsa eta bi kontenedoretan. Zortzi tona hondakin ez dituzte lau lagunek motxiletan mendira igotzen. Hala ere, Maite Pelaezek ontzat eman ditu zortzi tona horiekin. "Aurreko urteekin alderatuta zabor gutxiago da, hala ere, nahiko gauza bitxiak aurkitu ditugu mendian barreiatuak", dio zinegotziak. Horien artean, erai-kuntza materialeak izan dira harrigarrienak.

Ion Etxeberria, Udal Zerbitzuetako teknikariak agerraldian argi utzi nahi izan zuen hala ere, zortzi tona horiek mendian berez sortzen ez diren zaborrez osatzen dira. "Sastrakak kentzen denbora askotxo eman dugu errekaetako urek hobeto igaro daitezen", azaldu du. Edonola ere, Maite Pelaezek onartu du oraindik "mendiarekiko errespetu eta kontzientziario" gutxi dagoela, nahiz eta azken urteetan asko aurreratu izan den.

KARNET ERAKO ARGAZKIRIK BEHAR?
NAN, GIDA BAIMENA, EHIZA, IKASTETXE...
EDOTA LAGUNEI OPARITZEKO
20 ARGAZKI KARNET ERAKOAK
BAKARRIK
3,58.-euro
foto FRANAN
 Zuloaga, 4
 Anbulategiaren parean
HONDARRIBIA

ARRETXE

ERRETERIA
 Larzabal 14 • 943 34 01 82
DONOSTIA
 Zabaleta 54 • 943 28 65 72
HONDARRIBIA
 J. Alonso 5 • 943 64 27 77

Xarmanta abesbatzak bere lehen diska aurkeztu du Portuko elizan

Xarmanta abesbatzak Portuko elizan eman zuen kontzertuan Pili Anuncibay zuzendaritzaren menpean bere lehen diskoa aurkeztu zuen.

Herriko talde bat da, gehienak adineko emakumeak direlarik. Elkartearen batezbestekoa hirurogeita hamar urteen inguruan dago.

Orain dela hamalau urte sortu zen Javier Bustoren eskutik. Urte hauetan zehar, jendaurrean egin dituzte bere agerpenak, eta denak Herri Kanta Jaialdian izan dira.

Musika talde honen errepertorioa, Hondarribiko ohitura, jolas eta egoera desberdinekin erlazionatuta dago. Abesti hauetako gai batzuk besteak beste, Azken Portuko kina jokua, arrain salmenta Hendaiian, Hondarribian zehar udatarrek egiten zuten ibilaldiak dira besteak beste.

Pili Anuncibay zuzendariaren esanetan, "abesti hauek Hondarribiako iraganaren lekuko izan nahi dute. Horregatik, disko bat grabatzea erabaki genuen eta horrela

guk bakarrik kantatzen ditugun abestiak besteek ezagutu ditzaten eta ahal den neurrian ondare kulturala aberastea da gure nahietako bat".

Xarmantako partaide esanguratsuenetako bat, Lurdes Zubeldia da. Urte guzti hauetan etengabeko lana egin du kantuak konposatzen edota idazten. Bere lana eta berarekin batera dauden emakume guztiena ezinbestekoa izan da diska eder honek argia ikusi dezan.



Diskaren azalean parte hartu duten emakumeak agertzen dira



AUKERA HAUNDIA BANDERILA
ETA KAXUELETAN

San Pedro, 31
Tel: 943 642705

20280 HONDARRIBIA



Arrantza denboraldiari hasiera makala eman zaio

Berdelaren kanpaina ez da ona izan, baina antxoak poza ekarri du herriko arrantza familientzat

Arrantzaleek otsailaren amaieran abiatu zuten berdelaren kostera. Sei aste bete dira, eta orain arte lortutako harrapaketen urritasunak Kofradiako arduradunen kezka sortu ditu. Izan ere, iazko kanpainarekin alderatuta arrantzontziek Bentara hutsean itzultzen direla dio, Kofradiako abade nagusia den Norberto Emazabelek. "Orain arte ezin izan dugu ezertxo ere harrapatu", esan du arrantzaleen nagusiak.

Hala ere, krisialdi hau ontzi handienak pairatzen ari dira soilik. Zentzu honetan, legatzontzi txikiak bi hilabete daramatzate Kantabriako kaietan eta emaitza onak lortzen ari dira.

Izan ere, orain arte berdela asko harrapatua izan den arren merkaturatzerakoan merke egin behar izan dute. Hondarribian 1996an 1.540 tona, 1998an 2.083 tona eta 1999an berriz 3.675 tona berdel harrapatu izan dituzte joera gorakorrean. Baina 1999an adibidez, berdelak urteko harrapaketa guztien %42,7a suposatu bazuen, merkatuan diru sarrera ororen %10,1a soilik izan ziren 3.675 tona haiek.



Kamioi-zisterna berri bat kaleak garbitzeko



Kaleak garbitzeko erabiliko den kamioi berria

Txingudiko Zerbitzuak enpresak kamioi-zisterna berri bat du Irun eta Hondarribiko kaleak urez garbitzeko. Iveco etxeko kamioiak 15.000 litro ur biltzeko gaitasuna du bete zisternan eta batez beste 28 litro erregai kontsumitzen du ehun kilometrotan.

Aitzitik, motorra itzalita edukirik kamioiaren gibelaldean dauden hodi bien bidez ureztatzeko sistema du berrikuntzarik aipagarriena. Izan ere, ur-ponpa lagungarria erabat berex dago ibilgailuaren motorretik, eta ondorioz, kamioitik eta kamioiaren goiko aldeko eta gibelaldeko hoditik nahiz pertikatik ureztatzeko modua eskaintzen du, motorra martxan egon beharrita izan gabe.

Kamioiak presioz ureztatzeko sistema hobea du, sei aho independente eta norabide guztietan aurreko aldean, irisgarritasun zaileko lekuetaraino heltzeko xedean. Alboetako aho bietatik irteten den ura 50 metroko tartera irits daiteke, eta beste lauetatik irteten den urak, zorua presioz garbitzea eta bidea hobeto garbitzea dute xede. Horretarako, ibilgailuak martxan behar du.

JATETXEA

LA HERMANDAD DE PESCADORES

Calle Zuloaga, 12 • HONDARRIBIA • Tel.943 64 27 38

Foto Sistema

ARGAZKIAK

ORDU BETEAN

Ilusargi 3
Tel 943 64 57 65
20280 HONDARRIBIA

2006ko apirila eta ekaina programazioa aurkeztu da Saindua Gaztelekuan

Datorren hiruhileko programaketa apirilaren 3an martxan jarriko da. Oraingo honetan ikastaro, tailer, irteera zein batzarretan parte hartzeko aukera izango dute herriko gazteek.

Ikastaroak

-Gitarra

Astearte eta ostegunetan burutuko da, taldearen arabera 19:00etatik aurrera.

-Perkusioa

Perkusio afrikarra eta latino. Asteartetan 19:30etatik 20:30etara

-Kapoeira

Ostegunetan 19:00etatik 20:30etara

-Sabel Dantza

Ostiraletan 19:00etatik 20:00etara.

Ekintza hauek 12-29 urte bitarteko gazteei zuzendurik daude.

Parte hartze kuota 20€ koa izango da.

Izen emate epea Apirilaren 1a arte luzatuko da.

Tailerrak

12-17 urte bitarteko gazteei zuzenduriko ekintzak dira tailerrak. Interesik duten gazteok gaztelekutik pasa eta hitz ordua jarriko dugu gustuko tailerra norberak ahal duen orduan egiteko; postregintza, sukaldaritza, eskulanak, abalorioak, eskumuturrekoak, larrua...

norberak ekarritako proposamenak ere jaso eta ahalbidetzen saiatuko gara.

Tailerrak doakoak izango dira.

Irteera

Irteera 12-17 urteko gazteei zuzendutako ekintza da. Egun pasa moduko irteera egiteko aukera luzatzen zaie herriko gazteei. Interesa duen gazte oro gaztelekutik pasa daiteke proposamena egin eta garatu ahal izateko.


Batzarra

Ekainaren 16an 19:00etan burutuko da Gaztelekuko Batzar Orokorra. Batzar honetan parte hartzera herriko 12-17 urte bitarteko gazte guztiak gonbidaturik daude.

Batzar honen xedea hurrengo hiruhileko programaketarako proposamenak jaso, gaztelekuko arauen jartzea eta gazteen proposamenak jasotzea izango da (ekintzak, irteerak, tailerrak...).



Saindua Gaztelekuak jarduera desberdinak antolatzen ditu



**JAVIER
OPTIKO**

OPTIKA ETA OPTOMETRIAN DIPLOMATUA
OPTOMETRIA KLINIKOAN MASTERDUNA
KONTAKTUKO LENTEAK

San Pedro, 6
Tel. eta Faxe: 943 64 37 75
20280 HONDARRIBIA



ENARA

INMOBILIARIETAN ADITUAK


www.inmobiliariaenara.com



San Pedro 1
20280 HONDARRIBIA
Serapio Mugika, 2
20302 IRUN

Tel. 943 64 39 72
Tel. y Fax 943 64 54 38
Tel. y Fax 943 00 46 28

Herri Kanta Jaialdiak kartel irabazlea badu



Sagarzazu eta Sorondok egindako kartela

Udalak antolatu zuen lehiaketak Herri Kanta Jaialdiarako kartel bat bilatzeko helburua du. Mikel Sagarzazu eta Joxhe Ramon Sorondo izan dira Herri Kanta Jaialdirako kartel lehiaketaren lehen irabazleak.

Bere lanaren izenburua "Ahotsak dantzan" da eta hurrengo urteetan erabiliko da Herri Kanta Jaialdia iragartzeko.

Bi urte pasa ondoren berriz hasi dira lanak

** Urbycolan enpresa arduratuko da udal bulego berriak eraikitzeaz*

Bi urte inguru geldirik egon ondoren berriz ekin zaie udal-eraikin berriko obrei. Eraikin horretan kokatuko dira Udaletxeko zenbait bulego eta artxibo historikoa.

Gaur egun udal bulegoek ez dute lekurik aski herritarrei behar bezalako zerbitzua emateko, eta horietako batzuk ahal den lekuan kokatuta eta sakabanatuta daude. Esate baterako Kontuhartzailtza, Errentak eta Dirubilletako Departamentuak Kale Nagusiko lokal batean daude eta Gizarte Zerbitzuetakoa beste batean, eta honen egoera are okerragoa da, sarbide egokirik ez duelako.

Proiektuaren aurrekontua 1.100.000 eurokoa da eta gutxi gorabehera 14 hilabeteko epean eraikiko da. Lanak Urbycolan enpresari esleitu zaizkio.

Eraikin berri honek 950 metro karratu izango ditu erabilgarriak



Urbycolan enpresa gogor dabil galdutako denbora irabazi asmoz

pa

inmobiliaria
gestoría
administración de fincas

pérez alkain

Nafarroa 36-11
48900 Hondarribia
Tel. 943 643 557
Fax. 943 643 557
e-mail: galdak@perezalkain.com

PINTXO, RAZIO ETA OGITARTEKOETAN
ESPEZIALIZATUA

Bar Ignacio

SAN PEDRO, 20 20280 HONDARRIBIA
TEL. 943 643 557

Zuloaga Etxeko tren maketagintzan erakusketa jende askok bisitatu du

Kultura Departamentuak, "Bidasotarra 7301 de Amigos del Ferrocarril" taldearen laguntzarekin, 4 egun tren maketagintzan - zatoz zure trenak erabiltzeko erakusketa antolatu du.

Erakusketa Zuloaga etxean jarri zen, apirilaren 6tik 9a arte. Ostegunean, Ostiralean eta Larunbatean, arratsaldeko 6etatik 9a bitarte zabalik egon zen eta igandean goizeko 11etatik eguerdiko 13:30 arte.

Bertan, tren-zaleek, haurrek eta helduek, beuren trenak abian jartzeko aukera izan zuten horretarako jarriko diren instalazioetan eta gainerakoak erabilera erraza duten maketak erabil ahal izan zituzten. Bertan 60 bat urte dituzten tren-makinekin ibiltzeko aukera paregabea izan zuten.

Aldi berean, Hugin modeliko txartelak emango dituen antzina-ko makina jarri ziren. Horrek sarrerako txartelak balioztatzeko aukera eman zuen eta bide batez erakusketara zenbat bisitari azaltzen diren kontrola eramateko ere.

Iazko erakusketan 1.600 pertsona igo ziren intermodal geltoki trenara.



Tren maketa ederrak egon dira erakusgai Zuloaga Etxean



Prestaketa lan haundia eskatzen dute maketa hauek

EXPERT GEURIA

SUKALDEKO ALTZARIAK
Tel. 943 64 07 14

ETXETRESNAK
Tel. 943 64 33 86

San Pedro, 3 • San Pedro, 4
20280 HONDARRIBIA

HONDARRIBIKO GIMNASIOA

AEROBIC, SPININ, FUNKY, HIP-HOP,
BODY BULDING, BODY COMBAT,
MUSKULAZIOA, MANTENIMENDUA,
MASAJEAK, SAUNA, PIRAGUEN ALOKAI-
RUA ETA GORDELEKUA...

"ZURE GIMNASIOA HERRIAN BERTAN"!!!

Hondarribia Arraun Elkarte • Tel. 943 64 01 61 • 20280 HONDARRIBIA

EDORTA KANPANDEGI

Hondarribiko Arraun Elkarte



Kesala nagusi den lekuan ontzia gertu, eta Hondarribia ez da salbuespen. Nekez ahaztuko du gure Kale Nagusiak iazko iraila, gazte gutxi batzuen balentria eta hainbat zaleturen poza. Baina arrauna Kontxa baino gehiago da, eta bandera bakoitzaren atzean ordu asko eta talde-lan handia dago. Horren berri aspaldi du Hondarribiko Arraun Elkar-teak eta bertako kudeatzaile den Edorta Kanpandegigana jo dugu kontu gehiago jakin nahian.

Noizkoa da elkarte? Nola dago antolatua eta zenbat bazkide ditu?

Hondarribiko Arraun Elkarte, elkarte moderno gisa ezagutzen duguna, 1968an sortu zen. Hala ere, lehenengo arraun elkarte 1968koa baino lehenagokoa da, kofradiaren bitartez sortu eta gaur egungoaren aldean desberdina.

Elkarteetan ohikoa den bezala, gure elkartean ere zuzendaritza batzordea dugu; hau da, lehendakaria, lehendakariordea, diruzaina eta idazkaria. Horrekin batera, 13 batzordekide ere baditugu eta, hortaz, orotara 17 kidek osatzen dute gure elkarteko zuzendaritza.

Bazkideei dagokionez, 930 lagun inguru ditugu guzuzen. Bazkideek bete behar duten fitxan duela gutxi hasi gara adina eskatzen eta kopuru zehatza ez dakigu ziur. Bazkide gehienak 40-45 urtetik gorakoak dira eta gazteak gutxiago dira.

Zein dira bazkide izateko baldintzak?

Gure elkarteko bazkide izateko fitxa bat bete behar da eta urtean gutxienezko 30 euroko kuota ordaindu. Bazkide gehienak Hondarribikoak dira, baina hori ez da derrigorrezkoa. Izan ere, Irungo jendea ere badugu, Donostiakoa...

Ze kirol esparru lantzen dituzue?

Gure jarduera nagusia lehiaketako arrauna da, baina horretaz gain, aisialdiko arrauna, aisialdiko piragismoa eta gimnasio zerbitzua ere badaukagu. Pira-

guismoari dagokionez, ikastaroak antolatzeaz aparte alokairuak ere egiten ditugu, besteren artean; gimnasioan, berriz, muskulazioa, airobic-a, spinning-a... lantzen dira.

Esan bezala, arrauna da gure ekintza nagusia eta bi modalitateetan aritzen gara; batetik, fijo deitzen duguna (batel, trainerila eta traineruari dagokiona) eta bestetik, aulki mugikor gisa ezagutzen duguna (arraunketa olinpikoa, hau da, laku, ibai edo ur lasaieran egiten dena). Aipatutako bi modalitateetan haur-kategoriatik hasi eta seniorretarainoko mailetan dauden neska-mutilak ditugu; astebururo estropadak egiten dituzte eta, gainera, egun berean estropada bat baino gehiago ere izan ohi ditzakete. Jakina denez, horren atzean lan eta azpiegitura handia dago.

Gipuzkoa mailan oso instalazio onak dituzue...

Bai, baina Gipuzkoan ez ezik, Estatu mailan ere Zoritzarrez, leku gutxi dugu; txikiak geratu zaizkigu bai hangarra eta baita gimnasioa ere. Dena den, hori seinale ona da; jende eta ontzi gehiago dagoen seinale.

Zerikusirik ba al dute jasotzen dituzuen laguntzek zuen instalazioen maila onarekin?

Udalak eman dizkigun azken laguntzak materiala erosteko izan dira. Arraun elkartearen instalazioak udalarenak dira 1992. urteaz geroztik, baina kudeaketaz arraun elkarte bera arduratzen da. Hasieran

bagenuen nahikoa leku, orain, ordea, leku gutxi dugu, eta leku falta dela-eta udalarekin harremanetan gaude. Gimnasio gainean beste entreplanta edo tarteko oina egiteko asmoa dugu, era horretan 150 m2 gehiago lortzeko, baina horrekin ez genuke gimnasioaren arazoa konponduko. Era berean, atzeko aldean beste eraikin bat egin nahi dugu, baina oraingoz ez dugu ezertan hasteko asmorik. Udala ahaleginak egiten ari da, nahiz eta oraindik ezer zehatzik ez dugun.

Nolakoa da gimnasioko giroa? Zeintzuk dira bertan izen emateko baldintzak?

Gimnasia edonor etor daiteke; nahikoa da bertako kuota ordaintzea eta ez da bazkide izan beharrik. Irundar dezente dago bertan eta gimnasioa izateko, nahiko merkea da gure gimnasioa.

Instalazioen maila onarekin batera, arraunean ere emaitza onak lortu dituzue. Espero al zenuten iazko denboraldia hain arrakastatsua izango zenik? Hurrengoia nola ikusten duzue?

Iaz goian ibiltzeko taldeak bagenituen, lau traineru, hain justu. Horrekin batera, egun on bat izan, estropada ona egin eta banderaren bat etxera ekartzeko itzaropena ere ez genuen galtzen. Halaxe, Kontxakoarekin batera, bandera franko lortu genuen. Geroztik zenbait baja izan eta penaz jaso ditugu, baina talde polita dugu.

Hondarribian Donostiako bandera poza eta tradizioa-

ren ikur da aspaldidanik...

Bai, noski. Gure betiko ametsa izan da hainbesteko historia



Abenduan Kontxako egungo eta aintzeko irabazleei omenaldi hunkigarria eskaini zitzaion atzo goizekoa.



Ainara Elizondo

duen bandera. Beti entzun izan dugu jendea berari buruz hizketan, garai bateko argazki zuri-bel-tzak ere maiz ikusi izan ditugu... Horrek guztiak afizioari indar handia ematen dio; gainerako kirolak baztertu gabe, Hondarribian kirol nagusia arrauna baita, eta arrauna Hondarribian bizi egiten baitugu. Oriorekin beti izan dugun lehia ere ez da atzo goizekoa.

Iaz Gipuzkoa Kirolak

saria jaso zenuten...

Bai, saria Foru Aldundiak ematen du eta baldintza mordoa bete behar da saria jasotzeko. Herriarekin, neska-mutilekin, ikastolekin, kirolaren alde... egindako lana kon-tuan harturik eman ziguten saria.

Martxoan Londreseko estropada famatuan estreina-koz parte hartu eta postu onean geratu zineten...

Bai, Thamesis ibaian kontrako norantzan eta erlojuaren kontra egiten den proba da, eta 420 ontzik hartu genuen parte. Gu 30. lekuan geratu ginen eta bertara joandako euskaldun bakarrak izan ginen. Gure curriculum bidali eta onartu egin gintuzten, bertara ez baitute nahi duten guztiek joaterik.

BAR - RESTAURANTE **LARRA**

C/ DAMARRI, 4
20280 HONDARRIBIA
TEL.: 943 64 27 04



Pintxos, Bocadillos, Platos Combinados,
Menús del Día, Menús a la Carta.



GESTIÓN:

CONTABLE,
FISCAL,
LABORAL
* SEGUROS

GESTIOA:

* KONTUHARTZAILEATZA, FISKALA
ETA LANAREKIN LOTUTAKOA
* ASEGUROAK

Altzotik nator, altzora noa...



Martin Iturbe

Altzoko erraldoiari buruz idatzi nuen azkenekoan. Eta hain zuzen haren auzo-auzoan jaiotar bertsolari baten oroitzera erne da nere buruan.

Azkenaldi honetan asko hitzegin da bertsolaritari eta bertsolariei buruz. Aurreko bertso-txapelketak baztarrak ondo astindu ditu; eta askoren bertso-sena sutan gotirua eduki du. Bidezko denez, txapeldunarentzat izan dira txalorik ugarituenak eta aberatsenak: hala ere, haren ondoan lehiaketa beroan aritu direnak ere txaloak merezo dituzte, azkenean txapelaren itzalpean burua estaltzerik izan ez badute ere.

Gaurko nere begirada, ordea, pertsona apalagoengana dijoa; gure herrietan isiltasun apalean bizi inzan eta edertasun harrigarritz gure bertso-zelaia dotoretu duten horiengana, hain zuzen edo/eta familietako jaialdiak izan ohi ziren kantu-zelai.

Maila horretan aritu izan diren bertsolari "Txiki-haundi" horientzat nere harridura eta txaloa.

Ezagutu ditudan guztien artetik, eredu gisa hartu nahi nuke Patxi Zubeldia.

Altzo Azpin jaioa. Lanbidez artzai izana bere gaztealdian.

Izenez "Altzanberri". Hala ere, aurreneko ezaugarri-izaena "Artzai berri" omen zen: gerora, azeriak harra-patzea izan zuen bere "ofizioa".

Euskalerriko eta Burgos-aldeko azeriek ez zioten esker on haundirik emango, ehiztari trebea zenez, eta hala behar ofizio horretarako-, beraientzat eraile aspergaitza zenari.

Dena den, Patxiri dagokionez, bi gauzatxo aipatuko ditut.

Bata: mutil gaztea zelarik, hogeita bi urte besterik ez, Zaldibiara deitu zuten pesta-egunean bertso-kantura. Herrira iristean, han omen zetorren amonaxo bat, meza nagusitik etxera, eta laguneak hala esan omen zioten Patxiri:

"Patxi! Amona honek ez dik izango hire bertsoak entzuteko suerterik. Bota ezaiok bertso pare bat!!
Eta, ogeita bi urteko gazte harek honel kantatu omen

zuen:

*Nolanahi ere ajea leika/danik pertsonik sanona,
baldin gaztetan hiltze-ez bagera/zahartu beharra
danona.*

*Neronek ez det probatu baiña/zuk badakizun amona,
urteen karga jaso eziña/ ez da izango lan ona.*

*Amonatxoa hortze dijoa/ gain-behera makurtuta,
esku-makilan anparo billa/ gorputzadana okertuta,
gazteok ondo pentsa dezagun/ amona irudia hartuta,
gaztetan hiltzen ez bagerade / zer datorkigun zahar-
tuta.*

Bigarren aipagaia hauxe da: Oriako alegian pesta bat antolatu zuten, eta, besteak beste Patxi eta ni era bazkaltzera konbidatuak izan giñen.

Bazkalondoan bertsotan hasi zen, eta ¡¡Harrigarria!! hain bertsori egokia, argia eta bizkorra zena, erdibidean moztura geratu zen, ez zerurako eta ez lurrerako.

Ni aurrez nengoen eserita, eta han sortu zen isiltasun dardaratiaren erdian, barne-eragin ezezagun batek bul-tzada eman zidan barne-barnean.

Eta, iñoiz eta iñun izan ez dudana ausardiz, batbateko hura atera zitzaidan:

*Zeru urdiñak bereak ditu/ izar eguzki ta laiño,
uste gabeen ekaitza ere/ baadtorre gugaiño.
Hitza etdenda bertsolaririk/ ez nun ikusi egundaiño,
den den, sure erdia hobe/ batzuren osoa baiño.*

Bukaerako hitzak errazak aukeratu nituen, hori garbi dago. Baiña, han zeuden guztien txalo-zaparradaren erdian, Patxik, bi eskuz eman zidan estutua gogoan daramat oraindik.

Guzti honekin, hauxe besterik ez dut agertu bahi izan: gure herrietan izan diren bertsolari ezezagun guztiei, nere txaloa, eskerrona eta harridura aitortu.

Herri txikietako bertso-zaletasuna eta bertso-giroa haiek gorde bait zuten bero beroan bejondakiela, arbolaren zaiñak lurrazpitik bidaltzen duen gesalak abar-ostro ederrez udaberria apaintzen duen bezala, euskal giroa bere ederrean gorde izan zuten bertsolari apalei!!!

Erreginaren Baluarte birgaitzeko sinadura egin da

Udaletxeko Areto Nagusian egin zen martxoaren bukaeran Erreginaren Baluarte birgaitzeko proiektua sinatu zuten Joxe Joan Gonzalez de Txabarri Ahaldu Nagusiak eta Borja Jauregi Hondarribiko Alkateak, Xabier Agote Foru Aldundiko Kultura zuzendariaren begiradapean.

Baluarte eta inguruak konpondu eta jendeak erabiltzeko moduan jartzea da esku-hartzearen asmoa, eta horretarako 1.800.000 euro xedatuko dira, zeinetatik 1.160.000 Foru Aldundiak ipiniko dituen. Gainontzekoa, Udalaren kargu joango da, nahiz eta Eusko Jaurlaritzarekin kontaktuan dauden nolabaiteko laguntza lortu asmoz.

Proiektuaren helburua Baluartearen jatorrizko arkitektura berreskuratu eta agerian jartzea da. Horretaz gain, jatorrizko erabilera berreskuratuko duten ibilbideak egingo dira, saneamenduko instalazio berriak, gaueko argiteria, edateko ur puntuak...

Joxe Joan Gonzalez de Txabarri Ahaldu Nagusiaren hitzetan, "Baluarte Hondarribiko ikur izatea nahi dugu. Bertokoek eta bixitariak gozatzeko gune bat lortu nahi da, eta gaur egun hori ezinezkoa dela ikusten da. Udala, Hondarribiko Hiria Historiaren Lagunen Elkarte eta Foru Aldundiaren elkarlana uztartuta gauza eder bat egingo dugula ziur naiz".

Bestalde, Borja Jauregi alkateak "gaur egun erabiltzen ez den gune bat erakargarritasun handiko zerbaitetan bilakatu nahi dugu. Gure historia errespetatu nahi dugu, eta proiektu honekin lortuko dugula uste dugu".

Proposamenak aurkezteko epea amaituta, bi proiektu aurkeztu dira. Aukeratu ostean, maiatzean edo ekainean lanak hastea pentsatzen da, eta datorren urteko ekainerako amaitua egongo dela espero da.



Hondarribiari buruzko liburu berri bat

Apirilaren 6an aurkeztu zen Udaletxeko Areto Nagusian, "Hirian Barrena. Hondarribia" liburua; liburu hau letren eta margolaritzaren munduan ospetsuak diren bi hondarribiarrek egin dute: Javier de Aranburuk idatzi eta Javier Sagarzazuk irudiztatu.

Borja Jauregi izan zen aurkezpenean bi egileekin batera. "Oparitzeko aukera ezinhobea bat da liburua. Asko luzatu da, baina benetan merezi du. Nik hainbat ale gorde ditut neretzat, Hondarribira etortzen diren eta ezagupen berezia izan dezaketen pertsona haiei emateko. Bikaina da benetan".

Sagarzazu eta Aranburuk eskerrak eman zizkieten "Udalari eta Hondarribiko herriari. Ahalegindu gara lan on bat egiten, eta lortu dugula uste dugu. Jendeak esan beharko du orain hori".

Liburua 30 €tan laster salgai izango da gure liburu-dendetan. Idazlearen arabera gure hirian barrena irudimenarekin ibiltzeko da. Testuarekin batera Javier Sagarzazuk egindako akuarela, marrazki eta grabatuak datoz. Hondarribiko Udalak beti bultzatu du ekimen hau, lan nekeza, zaila eta interes handikotzat jo duelako. Alkateak dioenez liburu hau argitaratzeak gu hondarribiar gisa ezagutzea dakar eta gure hirira datozen guztiei atea irekitzea.



163 GEREZIONDO LANDATU



Giro ezinhobean ospatu zen apirilaren lehen egunean Zuhaitz Eguna Oiamungo Gaianean. Bertan bildu ziren ehundaka hondarribiar: iaz jaiotako haurrak, beren anai-arreba, guraso, aitona-amonak pozik zeuden senide berriaren omenez landatutako gereziondoen inguruan.

Goizeko 11etan hasi zuen ekitaldia Borja Jauregi alkateak. Bere inguruan zeuden Gregorio Berrotaran Nekazaritza eta Mendi zinegotzia, Kattalin Noblia Euskarakoa eta Maite Pelaez Gizarte Ongizatekoa. Banan bana 2005ean jaiotako haur bakoitza izenda-

U BERRI DIRA JAIZKIBELEN



tzen joan ziren, eta gurasoei gereziando bana eman zitzaizen, bata Berroteranek prestatutako oroigarri txiki bat ere. Euskara Departamentuak aukera aprobetxatu zuen "Kontu Tikiak" liburuxka eta CDa banatzeko ere, guraso eta haurrek euskal abestiak ikasteko aukera luzatu asmoz.

2005ean, 163 izan dira Hondarribian jaiotako haurrak. Mutilen artean ohikoena "Unax" suertatu da, bost gurasok aukeratu baitute izen hau. "Martin" izena hiru mutilek eramango dute. Nesken artean aldiz, gehien erabilitakoak "Nahia" eta "Naroa" dira.

12 eta 17 urte bitarteko gazteen artean euskararen erabilera sustatzeko komunikazio kanpaina abiatu da

Udal Euskara Zerbitzuak herriko gazteen artean euskara sustatzeko komunikazio kanpaina bat abian jarri du. Oinarritzat Zerbitzuaren enkarguz SIADECO Ikerketa Elkartek egingo dako ikerketa bat hartu da, 12 eta 17 urteko gazteek aisialdia eta hizkuntza ohiturei buruzko ikerketa hain zuzen ere.

Datu horiek aztertu ondoren, komunikazio kanpaina egitea erabaki da. Aurkezpenean izan ziren Kattalin Noblia Euskara Zinegotzia, Koro Eraso arloko teknikaria eta Juanjo Allur SIADECOKo ordezkaria izan ziren.

"Hizkuntza ezagupenaren eta gero egiten den erabileraren artean alde handia dago" esan zuen Noblia zinegotziak, "eta komunikazio kanpaina

bat egitea erabaki dugu. Horretarako kartel deigarriak erabili ditugu, hiriko irudi esanguratsuetako batzuekin".



Juanjo Allur-ek esan zuenez, "12 eta 17 urteko gazteen artean, 10etik 9k badakite euskaraz, baina erabilera urriagoa dela ondorioztatu dugu. Euskarak kalera egin behar du, naturaltasunez zabaldu. Erakargarria eta eroso izan behar du, ez politizatua".

Apirilean zehar kanpainaren euskarri diren kartelak eta postaltxoak banatuko dira hirian zehar. Ondoren, bisita eta bilerak egingo dira herriko ikastetxeekin

eta gazte arloko beste erakundeekin. Maiatzaren amaieran euskarrien bigarren zabalpen bat egingo da.



Kanpaina berriaren irudietako bat hau da

Animaliak hirietan



Igor Olaskoaga

Hasi baino lehen aitortu behar dut animalia amorratua naizela. Gaur egun etxean bi txori bakarrik dauzkatzat, baina duela urte batzuk nire etxeak zoologiko baten antza zuen, bertan bi dortoka, lau txori, katu bat eta zakurra bainituen. Egia esanda azken honekin ez dut problemarik izan, ez auzokoe-ekin, ez inorekin...amarekin izan ezik. Kontua da txakurra gurasoek oparitu zidatela txakurrei nien beldurra ken zekidan eta jada nire ustetan nik haiei baino haiek niri didate beldurra.

Amarekin neuzkan iskanbilak zakurrak ateratzeko aldietan gertatzen ziren, berak errietan egiten zidan txakurra atera nezan baina urteak pasata ez zeukan modurik nik txakurra ateratzeko.

Jada hiru txakur izan ditut guztira, bata automobil batek akabatu zuen, beste biak berriz

txerto batez hil behar izan genituen sufri ez zezaten elbarriturik geratu zirelako gaixotasun bortitz batengatik.

Orain amak ez ditu txakur gehiago nahi ile asko botatzen dutelako eta nahiz eta ia beti sukaldeko txokoan edukitzen genituen txakurrak noizean behin zenbait ohetara ihes egingen zuelako bertan ile mordoa utzita.

Nik txakurrekin izan ditudan iskanbilak maila horretakoak dira, amaren eta bion artekoak, hortik gainera gauza handirik ez dakit, kaka kontuak hortxe direla, isunak jartzen dituztela eta jendea ez dabilela oso pozik, ez jabeak eta ez besteak, baina...tira, gaiaz konta diezazuekedana hori da, gutxi gora behera.

Igor Olaskoaga

eukeni optika

Opila Eguna oroitzapen on bat izateko 10 ideia

Aurten Hondarribiko Prebentzioko Udal Zerbitzuak 2000 liburuxka argitaratu ditu opila egunari begira, gogoetarako eta prebentziorako jarraibideak eskaintzeko helburuarekin. Joan den urtean bezala liburuxka hau Irungo Udaletxearekin batera egin da.

Gazteen helburua egun ona pasatzea da, lagunekin gozatzea, eta gure ardura balizko arriskuak aurreikustea da, horien artean edari alkoholodunen kontsumo neurrigabea edo goiztiarrarena.

Honetarako Ikastetxeen laguntzarekin saio bat egin dute gela bakoitzean Zerbitzuko langileek, eta guztira 535 gaz-

tek parte hartu dute.

Bertan liburuxka banatu eta zalantzak argitu dira. Gazte hauen gurasoek ekintzaren berri izan dute eskolatik bidalitako gutun baten bitartez.

Azken finean, gazteak modu osasuntsuan haztea, ikastea, gozatzea haien inguruan gabiltzan heldu guztion ardura baita.

Liburuxka eskolan jaso ez duenak Hondarribiko zerbitzu publikoetan eta Opilak saltzen diren dendetan lortzeko aukera izango du.



Industria tresneria
Elektrizitatea
Giltzen kopiak
Torlojugintza inoxidablea

MARINEL

Burdindegia

Beñat Etxepare 12 / Txiplao 14
Tel. 943 64 17 88
20280 HONDARRIBIA

BAR ETXEBERRIA



Ald. Zaharrean

Kale Nagusia, 27 - HONDARRIBIA

1911ean herritarrek prozesioa kalez aldatzea eskatu zutenekoa



Koldo Ortega

Hemen bizi garenok badakigu Hondarribiak eskaintza erakargarri eta zabala daukala bisitarientzako. Hondartza, Alde Zaharra, arrantzaleen auzoa, gastronomia... Hala ere, oraingo honetan, herritar eta bisitari asko erakartzen dituen ekitaldi batetaz ari gara, Ostiral Santuko prozesioa hain zuzen.

Gaiari buruz hitzegiten duen lehen agiria 1602koa izan arren, bere aintzinasuna haundiagoa dela uste da. Gaur egun, Aste Santuaren izaera berezi eta bakar hori tradizioari esker mantentzen da, bisitariei gehienbat prozesioa ikustera etortzea atsegin zaielarik.

Orduan, herritarrek limosnaz ordaintzen zituzten errepresentazioaren gastuak 1602ko gastu-erlazioan agertzen denez. Emankizunean parte hartu zuten pertsona guztien arropa eta apaingarriak Donostiatic ekarri ziren.

Hala ere, orain ez gara hasiko prozesioa nola antolatzen den deskribatzen, horretarako iturri gehiago baitaude. Lerro hauek aprobetxatu nahiko nitzuke Udal Artxibategian aurkitutako dokumentu baten berri emateko. 1911ko ekainaren 10ean zenbait herritarrek Udalari egin-dako eskaera bat da, prozesioak kale berri bat zeharkatzeko eskatuaz. Xelebrea eta interesgarria delakoan bere berri ematen dizuegu.

1911ko herritarren eskaria

Prozesioak Hondarribian daukan zeresana azaldu ondoren, Udalari honako eskaria egiten dio. Gazteleraz dagoen

bezala azaltzen dugu, interesgarriagoa delakoan: *"La procesión al bajar por la Calle Mayor entra en la de Fuentes y Gorgot (gaur Etxenagusia Margolaria kalea) la cual es muy angosta o estrecha y como los hombres con sus cirios van en dos filas, casi se juntan, están expuestos cuando no a quemarse, al menos a mancharse con las gotas que caen de los cirios..."*

Zera eskatzen diote Udalari: *"(...) siga la procesión por la calle Mayor y coja luego el trayecto de las murallas por la parte interior, para salir luego a la calle de las Tiendas y seguir la misma ruta hasta llegar a la Parroquia".*

Idatzia honako hauek sinatzen dute: Norberto Aguirre, Eustaqui Berrotaran, Eugenio Sorondo, Sinfor Lekuona, Claudio Arbelaiz, Jose Miguel Iridoy, Vicente Turnaco, Santiago Perez, Rufo Sorondo, Benito Amunarriz, Fermin Ortiz, Ruperto Amunarriz, Anastasio Olaizola, Teodoro Olaizola, Florencio Sorondo, Evaristo Olaizola, Hermogenes Berrotaran, Jose Juan Perez, Matias Perez, Celestino Salaberria, Maximiano Berrotaran, Pedro Jauregi, Domingo Albistur, Eusebio Sagarzazu, Tomas Esponda, Eugenio Virto, Francisco Arribilla, Eugenio Iriazabal, Leandro Olaizola, Pedro Berrotaran, Timoteo Oronoz, Jose Barco, Ramon Berrotaran, Lucio Irigoyen, Tomas Alcain, Antonio Sorondo, Federico Goñi, Ramon Igos, Francisco Lapito, Julian Alcain eta Anselmo Sagarzazu.



kai zahar
pub
almirante alonso, 12

kai zahar

truck
diskoteka
foru kalea, 13

TRUCK

C/ Markos Deunaren Enperantzia, 7
Puntala Auzoa
70280 HONDARRIBIA
Tel.mobila: 609 414145

ARRANDEGIA
ITSAS ALDE

ORDUTEGIA: ASTELEHENETIK LARUNBATERA 8-15
TELEFONOA: 943 64 04 88

SATARKA OLERKI LEHIAKETA 2005



Ana Lupe Iridoy

Urtaroz urtaro

Negua
 Urtaro desatsegina
 Lantzean behin anpuluak sortzen dira hodeietan
 Ortzitik jariatuz lurrera
 Kaleak bustiz
 Inor ez ikusiz.
 Hotzak ditu herriko kaleak estaltzen
 Oihu bortitz bat bezala guztiok ikaratzten
 Zuri-zuri dago guztia
 Negar saminez beterik ontzia.
 Denbora iragaiten doa
 Eta bertan so egiten da gure jainkoa
 Eguzkia egiten da zeruko erregina
 Milaka umerekin eskua emanaz
 Guztia bihurtzen da lerdan
 Zuria zegoena bilakatzen da berde.
 Berde itxaropentsu..
 A ze ospetsu!
 Urteroko miraria
 Bertan da ageria
 Eguzkiaren eraginez sustrai ziztrinetan
 Hosto samur eta lirainak dira loratzen
 Milioika usain nahasietan
 Lurrari bizitzera diote bueltatzen
 Bertan dator udaberria anderea



B MAILA 2. SARIA

Irribarre ugarien emaila.
 Malurraren barruan
 Bizitza irakiten dago suaren moduan
 Kanpora irten nahirik,
 Egi bihurturik zenbait eskari
 Bai erle, bai txori
 Inurri edota amona mantangorri
 Euria gehituz eguzkiaren indarrari
 Guztia dago gori-gori
 Hurbilean daude enarak
 Haiekin batera kantu alaiak
 Egunak dira luze
 Eta itsasoa dator bare-bare.
 Nagusi dugu beroa
 Hondartzan egonez jende mordoa
 Guztiak ur ertzean
 Itsaso kresalaren menpean.
 Gaez bere kri-kriarekin agintzen du ipurtargiak
 Egunez berriz pinpilinpauxak hegoak irekiz eta erakutsiz bere koloreak.
 Azkenean beroak gaitu agurtzen
 Udazkenari pausoa ematen
 Haize bortitzek laguntzen diote bidea irekitzen
 Zulo beltz triste batera gaituelarik sakontzen
 Zuhaitzak indarrez astintzen ditu
 Hostoak lehortuz
 Jadanik lurrera erotzen dira
 Adarrak biluztuz
 Urrezko mantu batek du lurra estaltzen
 Melankolia puntu bat honi emanez.
 Hegazti mordoa
 Bere lurraldeetara doa
 Lainoak oinaztargiak bidaltzen dizkigute trumoiekin
 Tristura itsura bat emanez
 Berriro ere negua dugu gurekin.

OTXOA

JANARIDENDA

*Barazki, fruta eta
horrelakoetan aukera handia*

San Pedro 43
Tel. 943 64 16 84
20280 HONDARRIBIA

Ondare

- GOZOTEGI
- OKINDEGI ARTESANALA
- TERRAZADUN
- KAFETEGIA
- HAUR FESTAK

C/Amute, 6 bajo
Tel.: 943 64 62 82
HONDARRIBIA

EUSKAL LIBURUAK EROSTEKO AUKERA OLEARSO LIBURUDENDAN



ARKITEKTURA ETA HIRIGINTZA HONDARRIBIAN

Ana Azpiri ikerketa interesgarria egin du hiriaren eraikuntzaz XIX. mende bukaeratik 1965 arte. Epe horretan Hondarribiak erakutsi zuen gai zela hirirako berezko proiektu bati eusteko, bai hirigintzan bai arkitekturan. Proiektu guztietan kalitate estetikoa bilatzeak bere historia azpimarratu du eta onarpen publikoa merezi izatera eraman du Hiri Monumentu izendapenaren bidez.



TXAN MAGOA

Txan Magoa traste zaharrak saltzen zituzten denda berezi batera sartu zen behin. Traste zaharrak magikoak dira askotan, eta hala gertatzen da ipuin honetan. Txan sartu zen dendako txalupa batean eta, nora ez zekiela, Egipto zaharrean agertu zen bat-batean, Faraoiaren aurrean. Faraoiaz gainera, munduan izan den magorik handiena ezagutu zuen: Dedi magoa.



POEMA

Lau liburuki kaxa batean: Biziminez, Izadiminez, Jainkominenez, Euskalminenez. Bitoriano Gandiaga (Mendata, 1928-Arantzazu-2001) poeta handi eta sentiberatasun berezikoa zela bagenekien, horren frogarria dira utzi zituen liburuak. Orain jakin da, ordea, beste poema asko utzi zituela idatzirik baina argitaratu gabe: koaderno nahiz orri solteetan, eskuz zein makinaz, ongi landuta edo zirriborroan. Gandiagaren idazlan horiek denak ikertzen ibili da haren obra ongi ezagutzen zuen batzorde bat, eta gaika antolatutako lau liburu argitaratuko dira orain, lau espezialistaren sarrera eta edizioarekin.




GUTI

Garai batean barku bakoitzean txakur bat izaten zen. Tripulazioko beste bat zen txakurra. Halakoa da Guti, txakur txikia, arratoi txakurra, txakur bizkorra eta bere kasakoa, marinel guztia bezala.



MATTEOMIGLIA

Matteomiglia herri zelebrea da, idazle irudimentsu batek bere ibilaldietan eta "egonaldietan" sortutakoa. Lau ipuin hauetako eszenarioa Matteomiglia da, hemendik aurrera irakurle gazteen artean ezagun egingo dena.



AINTZINATIK GAUR EGUNERA, HONDARRIBIA

Juan San Martin polifazetikoak 55 ataleko artikulua bilduma aurkeztu zuen bere argitarapenean, denak lokabeak, eta gehienak azkeneko urteotan Hondarribia aldizkarian argitaratuak. Argitarapen honetan jorratzen diren zenbait gai, etnografia, linguistika, historia, arte, arkitektura eta toponimiari buruzkoak dira, baina guztiak gai komun batekin, Hondarribia. Zalantzarik gabe, derrigorrezko tresna gure historia ezagutzeko.



**OLEARSO LIBURUDENDAN ESKURAGAI DITUZU
EUSKARAZKO LIBURU UGARI**

ETOR ZAITEZ ETA GALDETU!

**San Pedro 12 - HONDARRIBIA
Telf: 943 64 25 25**

Azalaren arazoak

Azalaren arazoak ez dira bakarrik azalaren arazoak

Edozein larruazal gaixotasuna barnealdeko desoreka batekin lotuta dago. Gaixotasun hauek heste eta giltzurrunak toxinak ondo deskargatzeko gaitasuna galtzen dituenean agertzen dira. Kausa komunak animalien jakia (haragia, arraultzak, esnekiak eta arraina) eta gaur egungo dietetika ohiturak izaten dira.

Azalaren gaixotasun guztiak gehiegizko toxinak deskargatzeko funtzio du. Hauek normalean gorputz organoen barruan edo inguruan gelditzen dira, baita digestio eta linfatiko sisteman. Toxinen deskarga honek ehuna eta barrualdeko gorputz organoei ondo ibiltzea laguntzen die.

Hesteak dira ondorioak lehen izaten dutenak eta horregatik oso garrantzitsua da bere funtsioa gogortzea. Heste makal batek mantenugaikoen xur-

gatze pobre izango du eta kanporatzea azalaren bidez egingo da. Beste barruko funtzio erasoak giltzurrunak, gibela eta tiroide dira.

Giltzurrunak ahultzen dituen produktuak hauek dira: esnekiak, azukrea, fruituak, antibiotikoak eta beste botika. Gibela animaliek produktoen gehiegizko kontsumo, azukrea eta epe luze batean kimika eta elikadurarako gehigarriak ahultzen dituzte.

Tiroideak ere hondatzen dira. Giltzurrunak, gibela, biriak eta hesteak toxina eliminatzeko gaitasuna lortu arte, tiroidea sargori eta ahula egongo da.

Azalaren arazo batzuk hauek dira: excema, psoriasis, zuri edo marroi tantoak.

Azalaren erupzio sintomak kendu laguntzeko bainu eman.



txuntxumela
zure bio-supermerkatu txikia

Es bio, es lógico

Produktuak:
Elikagai biologikoak, frutak eta barazkiak, eguneko ogia, gozokiak, tofu-a, seitan-a, hanburgesak, oliba-olioa, sesamo-a, ekilorea, txekor haragia, oliaskoa, txerria, arkumea, txerrikiak eta estebete begetalak. Edariak, zukuak, ardoak, caba, garagardoa. "Birkenstock" betulazeo zapatak. Umetxo biologiko eta emakume haurdunentzako produktuak. Fitoterapia, belardenda, Bach loreak, kosmetika (Logona, Sante-a eta Aloe Pura).

 **ETXEBIZITZETARA ERAMATEN DUGU**
HENDAYA - HONDARRIBIA - IRUN

Santiago Kalea, 33 - 20280 HONDARRIBIA
☎ 943 64 14 50 ✉ txuntxu@terra.es

Ofertas Eskaintzak

.Erregina-jele : 2+1	Dohainik
.Soja Letizina Dietisa 2 %20 deskontu	Dohainik
.Arroz esnea Banilla Lima 6+1	Dohainik
.Soja esnea Sanituri 8 + 4 edo 3 +1	Dohainik
.Fruitu zukua Eco-Salim 2+1	Dohainik
.Marmeladak Eco-Salim 2+1	Dohainik
.Olo esnea Oatly 12+2	Dohainik
.Zereal esnea Lima 6+1	Dohainik
.Beste esneak 12+1	Dohainik
.Himalayako gatz lanpara 5+1	Dohainik
.Fuitu zukua Lima 1+1	Dohainik
.Fruitu piruletak 3 +1	Dohainik
.Logona krema 2 %20 deskontu	Dohainik
.Txokolazteko zereal postre 3+1	Dohainik
.Aloe eguzkirako babes (15 eta 25) 2+1	Dohainik
edo 1 %20 deskontua	
. Extra oliba olio-birjina Soler Romero	
3 litroko lata 1+1 + 250 zl	Dohainik
. Aloe eguzkirako babes krema 2+ 1	Dohainik
edo 1 %20 deskontua	
.Arreta pertsonala	

ZER BERRI ONGI ETORRI BIDEO KLUBEAN



DVD

LOS CHICOS DE ORO

Bi gazte dira pelikula honen protagonistak. Nahiko pertsonaia xele-break dira, eta beren asmoa ahal den azkarren aberastea da. Hala eta guztiz ere, egitasmoak porrot egingo du. Azken ideia, aberatsak diren bi amona zaharrek ezkontzea da, daukaten dirutza kendu ahal izateko. Gertatzen dena, bi amonek xoxik ez dutela eta ezkondu nahi dutela gero seguru- en aldetik dirua ateratzeko.



DVD

EL CLAN DE LOS ROMPEHUESOS

Ameriketako futboleak jokatzeko zuen gizon ospetsu bat kartzelaratzeko dutenean hasiko da historia. Alkaideak ez du aukera galduko eta lan gogor bat ipiniko dio gizon honi, egindakoaren errua nolabait ordaindu dezan. Presoek osatzen duten futbol taldea entrenatu beharko du. Gauzak interesgarri jarriko dira jakiten dutenean nor izango den presoaren talde honen areriora: kartzelari- en taldea.



DVD

ELIZABETHTOWN

Dineinatzaile oso berezi baten bizitza kontatzen da filme honetan. Egun konkretu batean bere bizitza erabat aldatu egingo da. Elizabethtown hirira dihoanean, bere familia bisitatzera, Claire ezagutuko du, emakume eder, positibo eta oso erakargarria. Ordutik aurrera, Drew diseinatzailearen bizitza erabat aldatuko da, emakume honetaz erabat maiteminduko da eta.



DVD

LA MASCARA 2

Protagonistak bizitza berri bati ekiten dio, aita izateari zion beldurra behin gainditu ondoren. Berehala jakingo du jaio berri den semeak maskarak dituen botere izugarriak bere egin dituela. Hala ere, maskara honen aurkeko jabea haserretu egingo da, eta ordutik aurrera jaio berriaren aurka hasiko da botere hori kendu asmoz.



DVD

... Y QUE LE GUSTEN LOS PERROS

Duela ia zortzi hilabete bere senarrarengandik banandu egin den irakasle baten historia kontatzen da filme honetan. Bere familiak emakumeak bere bizitza berriz ere hastea nahi du, eta internet bidez bere datuak zabaltzen hasiko da ezagutzen ez duen gizonekin zitak lortu ahal izateko. Pixkanaka bere bizitzan era guztietako kandidatoak agertzen hasiko dira. Bapatean bi gizonezko ezagutuko ditu eta bietaz maiteminduko da, hala ere batekin bakarrik geratu beharko du.



DVD

EL METODO

Enpresa multinazional batek goi kargu bate- tarako pertsona bat behar du, eta hautapen frogetara zazpi pertsona aurkeztu dira Madril. Idazkari batek erakinek areto hotz batetara eramango dituzte, eta han hasiko dira bata bestea ezagutzen. Beldurra eta ezinegona nagusituko da, eta egoera paranoiko batean aurkituko dira zazpi pertsona hauek, konfidantza osoa galduko dutelarik euren buruetan.

VIDEO CLUB

ONGI ETORRI

Argazkien errebelatzea: Argazkilaritzeko materiala
-Eskaintza 13x18
-Eskaintza 2x1
-Errebelatu zure argazkiak CD jasotzeko formatuan

CASIO Eriju eta Iratzargailuak
Zilarra: eraztunak, belarritakoak, kate, pulsera, piercing...
Blitxiak: urrez txapetuak, kalitate handikoak

San Pedro, 53 -bajo • Tel.: 943 64 41 53 • Fax: 943 64 47 01

20280 HONDARRIBIA

ZER AURKI DEZAKET GAZTE INFORMAZIO BULEGOAN?



ONDARTZ EDERRA

ONDARTZ EDERRA

Txiplao Industrialdea, 27 - HONDARRIBIA
Tel/Fax: 943 64 02 56

**LA HUERTA
DEL PAÍS**

Fruitu eta barazkiak
freskoak eta
kalitatezkoak

www.lahuertadelpais.es

Zein da kale honen izena



Beste behin ere heldu gara irakurleak hain gustuko duen aldizkariaren atalera. Udal Euskara Batzordean jasotzen den gutun kopurua ikusita, lehiaketan gero eta jende gehiagok parte hartzen duela ohartu gara. Ia gehienek gainera erantzun egokia ematen dute.

Martxoko alean jarritako galderari ia 70 pertsonak erantzun diote era egokian. Jasotako gutun guztien artean, irabazlea **Aritz Garmendia Sagarzazu**. Berak esan bezala, irudi hartan agertzen den ermita edo baseliza Jaizubia auzoan dago.

Orain luzatzen dizuegun galdera beste bat da. Gure herriko kale baten berri galdetzen dizuegu. Guztiok badakigu non dagoen kale hori, handik askotan igarotakoak gara eta. Hala ere, askok ez dugu jakingo zein den kale honen izena, eta berriz ere hara joan behar-ko dugu kartela begiratzera.

Erantzuna jakindakoan, bidali Udal Euskara Batzordera, maiatzaren 8a aurretik, Beko Errota jatetxean bi pertsonentzako afaria zuentzat izan daiteke eta.

SAGARDOTEGIA JATETXEA

*Horra hor goian errota
irina pur pur ihota
ondo jan eta edan paketsu eta alai
hor duzue Beko-Errota*



JAIZUBIA • Tel. 943 64 31 94 • 20280 HONDARRIBIA

Herriko ohiturak duela 70urte



Berriro ere Hondarribiko Udaleko Udal Artxibategira jo dugu bertan dauden altxor ikaragarriak irteera bat emateko asmotan. Oraingo honetan apur bat aldatzea erabaki dugu, eta beste ikuspuntu bat erabili nahi izan dugu, beti eraikinak eta kaleak argitaratzen baititugu.

Aste Santuaren inguruan egonda, ezinbestekoa zen gaiari loturiko irudiren bat argitaratzea. Ikus daiteken bezala, prozesioan parte hartzen duten irudi barkuz ekartzeko ohitura zegoen.

Etxean horrelako altxorak dituen jendeak, eta gure aldizkarian argitaratuak ikusi nahi dituenak, Hondarribiko Udaleko Udal Euskara Batzordera bidaltzea besterik ez du, gustora asko argitaratuko ditugu eta.



**GOZOTEGIA
KAFETEGIA**

San Pedro, 4 - 20280 HONDARRIBIA
Tel: 943 641 047

ARRUKA

BERRI



RESTAURANTE

Hijos Bala, nº6 - 20280 Hondarribia
Tel: 943 642 712 - Fax 943 641 109
www.hondarribia.com

Martxoa2006

FERMIN OLASKOAGAK jasotako datuak:

JAIOTZAK

JAIOTZAK OTSAILAN

28an: AINUR Garin Larrarte, Hondarribiko Enrique eta Hondarribiko Gotzonen alaba.

28an: DANEL Segurado Izagirre, Hondarribiko Andoni eta Donostiako Itsasoren semea.

JAIOTZAK MARTXOAN

8an: IÑAKI Ruiz Ubegun, Donostiako Arturo eta Donostiako Maite-ren semea.

10an: URKO Granero Queiruga, Irungo Francisco Javier eta Donostiako Guadaluperen semea.

11an: DANIELA Etxeberria Berrio, Donostiako Bautista eta Donostiako Maria Angelesen alaba.

11an: ERITZ Brosa Ramos, Donostiako Gorka eta Donostiako Mirianen semea.

12an: SARAY Olazabal Perez de Arenaza, Hondarribiko Juan Manuel eta Hondarribiko Aloñaren alaba.

13an: HANY Castro Abiy, Donostiako Dario eta Addis Abeba-ko (Etiopia) Frehiwotren alaba.

15ean: UNAI Arrieta Pardavila, Hondarribiko Santiago eta Hondarribiko Estibalizen semea.

15ean: ITSASO Arrieta Pardavila, Hondarribiko Santiago eta Hondarribiko Estibalizen alaba.

15ean: ROSA Gamez Hernando, Donostiako Mikel eta Donostiako Silviaren alaba.

16an: NAIARA Oronoz Alzaga, Hondarribiko Miguel Maria eta Irungo Maria Soniaren alaba.

16an: LUCIA Lozano Bedoia, Donostiako Nicolas eta Buga Valle-ko (Kolonbia) Alexandraren alaba.

21ean: ENAITZ Manso Galarza, Errenteriako Iñigo eta Hondarribiko Itxasoren semea.

24an: JANITZ Alza Otegi, Hondarribiko Antton eta Oiartzungo Maria Itziaren semea.

30an: UNAI Ugarte Emazabel, Hondarribiko Joseba Iñaki eta Hondarribiko Maria Elenaren semea.

EZKONTZAK

3an: XABIER Amiano Bidegain, Lezokoa, eta **OIHANA Kanpandegi Mitxelena**, Hondarribikoa.

18an: JESUS Camara Herrera, Donostiakoa, eta **HELEN Agirre Berrueta**, Hondarribikoa.

18an: IÑIGO Lizarraga Irastorza, Hondarribikoa, eta **MARIA ARANZAZU Perez Lopez**, Irungoa.

25ean: EZEQUIEL Figueroa Arizmendi, Hondarribikoa, eta **MARIA JOSE Salaberria Lekuona**, Hondarribikoa.

25ean: IÑIGO Muñoz Galarza, Hondarribikoa, eta **MONICA Castellanos Sagarzazu**, Hondarribikoa.

25ean: HARITZ Solatxi Ibargutxi, Hondarribikoa, eta **JEZABEL Redondo Sagarzazu**, Irungoa.

25ean: FERMIN Blanco Emazabel, Hondarribikoa, eta **ZUHATZ Agirre Oregi**, Hondarribikoa.

25ean: JOSE Miguez Zelaieta, Irungoa, eta **NEREA Agirre Muñiz**, Irungoa.

HERIOTZAK

1ean: MARIA BUENAVENTURA Lapitz Jauregi, Hondarribikoa, 76 urte, Logroñon hila.

3an: JOSE Arbelaiz Arozena, Hondarribikoa, 71 urte.

7an: ENCARNACION Arribillaga Arbelaiz, Hondarribikoa, 77 urte, San Pedro kalean.

7an: VICENTE Muñoz Muñoz, Valle Abdalajis-koa (Malaga), 88 urte, Arrantzale auzoan.

7an: JOSEFINA BIENVENIDA Emazabel Alkain, Hondarribikoa, 81 urte, Santiago kalean.

11an: JOSE Intxausti Lakidain, Donostiakoa, 81 urte, Higer bidean.

19an: LUISA Ibañez Zubialde, Hondarribikoa, 74 urte, San Pedro kalean.

20an: JOSE ANTONIO Errazkin Kanpandegi, Hondarribikoa, 67 urte, Kosta kalean.

22an: MARIA DOLORES Fernandez Diaz, Merodio-Peñamellera baja-koa (Asturias), 81 urte, San Gabriel egoitzan.

23an: JUAN VICENTE Larrarte Tife, Hondarribikoa, 77 urte, Etxenagusia kalean.

24an: MARIA GUADALUPE Errazkin Darzeles, Hondarribikoa, 81 urte, Zubieta kalean.

25an: PRUDENCIO ANGEL Aginagalde Aginagalde, Hondarribikoa, 84 urte, Santiago kalean.

30an: ANTONIO Feijoo Gallego, Hondarribikoa, 84 urte, Barakaldon hila.

MARTXOKO EGURALDIAREN DATUAK. (Hondarribiko aireportutik jasoak).

Tenperaturarik gorena:	27,4° C, hilaren 25ean.
Tenperaturarik beheena:	3,4° C, hilaren 16an.
Bataz besteko tenperatura:	13,2° C.
Bataz besteko hezetasuna:	% 68
Euri-litroen kopurua:	144,1 litro.
Egunik euritsuena:	hilaren 11an 38,0 litro.
Euri indartsuenen unea:	hilaren 11ko 3,55etan, 27,6 litro.
Egun euritsuak:	21 egun.
Elur egunak:	0 egun
Kazkabar egunak:	egun 1
Ekaitz egunak:	egun 1
Behe-laino egunak:	2 egun
Ihintz egunak:	6 egun
Haizea >50 Km/ord.	11 egun
Eguzki kopurua:	128,0 ordu
Bataz besteko presioa:	1012,9 milibar
Presiorik gorena:	1028,6 milibar, hilaren 6an
Presiorik beheena:	992,7 milibar, hilaren 4an
Haizerik indartsuena:	hilaren 10ko 21,47etan, 108 Km/ord.

MARTXOKO UDAL LIBURUTEGIKO DATUAK

Mailegatutako liburuak: 554 euskaraz, 1710 gaztelaniaz eta 22 bestelakoak. Guztira: 2286 liburu.
Ekarri diren liburu berriak: 63 euskaraz, 205 gaztelaniaz eta 3 bestelakoak. Guztira: 271 liburu.
Bazkide berriak: 16 gizon eta 32 emakume. Horietatik 27 heldu eta 21 haur. Guztira 48.

Gehien mailegatutako liburuak:

Haurrak:Euskeraz:URIBE, Kirmen.-Garmendia Errege.

Gaztelaniaz:IBAÑEZ, F.- Mortadelo y Filemón.

Helduak:Euskeraz:ATXAGA, B.- Soinujolearen semea.

Gaztelaniaz:BROWN, Dan.- La Conspiración.

ARRANTZALE KOFRANDIAN MARTXOAN SALDUTAKO ARRANTZA KOPURUAK eta BATEZBESTEKO PREZIOA

Txitxarroa (Trachurus trachurus): 15.295 kilo 1,89 eurotan.

Makarela (Scomber japonicus): 4.932 kilo 0,49 eurotan.

Dorada (Sparus aurata): 124 kilo 5,31 eurotan.

Boga (Boops boops): 294 kilo 0,28 eurotan.

Sardina (Sardina pilchardus): 136.422 kilo 0,25 eurotan.

Erla (Lithognathus mormyrus): 7.644 kilo 4,91 eurotan.

Berdela (Scomber scombrus): 494.851 kilo 0,42 eurotan.

Korroko (Chelon Labrosus): 2.554 kilo 3,10 eurotan.

Muxar handia (Diplodus sargus): 1.304 kilo 8,21 eurotan.

Bestelakoak: 2.217 kilo 0,55 eurotan.

HERRIKO BIZILAGUNEN GORA-BEHERAK MARTXOAN

Altak: Jaiotzak: 16, eta kanpotik etorriak: 77

Bajak: Hildakoak: 13, eta herritik joanak: 51

Biztanle kopuru orokorra: 16.286 bizilagun.

Joski

. LENTZERIA ARROPA
. HAURRENTZAT ARROPA

Santiago Kalea, 21 Tel.: 943 64 17 65
20280 HONDARRIBIA



FUENTERRABIA. - Vista general

